

I ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1. Piarresen heia nolokoa zen.
2. Ongi arthatzén zituena agiendak.
3. Emague zuen ustogon Piarresen mi hest oag-

II

PIARRES

LANEAN 3

Segur, alimale guzien zoria ez dela bardina mundu huntan! Heian ere, jendectan bezala, *ontsa direnak* izaki; eta bertze batzu aldiz behi herrestan: zakur begigorri eta mirakuituz baizik xutik ez dagozin behi hetikal... Piarresen artha bere aziendentzat! Hogozi bat buru edo hurbil bazen han, heia garbi beroan, egun guzia etzanik, a behi beren sabel handietarat behin egorria chun aldiz goiti berriz ekarraraziz, athe-leihoak neguko horma eta haizeari ongi hetsirik. Piarres han zabilan maiz, beren buru handiak doi doia makurturik, begi on handi batzuekin hari begira zauden, Gorriari, Katzori, Xuriari eta bertzeeri fereka bat emanez, etzangia¹⁶ bat garbia hedatu beharrez, izaka¹⁷ eta errekek artharekin hustuz maiz aski, azpiak hala hala arduran eginez, *astleazkenarekin* eta *ortzira-learekin* bardin, zorigaitzaren beldurragatik. Buru ahulak ez zituen egundaino maite izan herrian, eta bere aita zuhurrak bezala, hirri egiten zuen, zaragarraren¹⁸ kontra bere behiari norbeitik beharri bat zilatatu ziotarik...

Hala hala, superztizione ttikikoa bezenbat fede handikoa zen Piarres, eta, Kanderailu goizean, bihotz oncz emanen zen buru-has, bere ama jiten zitziolarik heiarat, goizean jaun erretorak benedikatu xiritotik¹⁹ hiru xorta, Trinitate Sainduaren izenean, heia hartarat lehenik eta gero oilategirat edo xerritegirat ixuri beharrez. Behin baino gehiagotan, lehenago, bere ama maitearen eskutik sorbalda- ren gaincan hartu zituen, haurrean, hiru xorta horiek, sukar mota guzietan kontra: ongi baliatu ere baitzitzaizkon behar bada... Biziki pallitago othe zen, behi bat heian eri izanez, Amoztar gizon bat bezala, *auzo-herrirat*, Sarako xara²⁰ batetara, *argi-hastea* gabe joaita, eta *auzo-herriko* xararik *argi-hastea* gabe hola ekarri goosti-aldaska bere heian emaita, behiaren sendarazteko?...

Dagozin = dagon
 Gorosti = goosti = houx.

III ADITZ IRASKUNTZA.

31. Dagozin	32. Zabilan
33. Zitzaiolarik	34. Baitzitzaiikon.
31. EGON. Indic. Présent	Subjonctif Présent
Ni nago = je reste	Nagon = que je reste
Hi hago = tu restes	Hagon = que tu restes
Zu zaudu =	Zauden = que vous restiez
Hura dago =	Dagon = qu'il reste
Gu gaude =	Gauden = que nous restions
Zuek zaudetzte =	Zaudetzten = que vous restiez
Hek daude = etc	Dauden = qu'ils restent

32 I BILI. Indic. Imparfait. Potentiel Imparfait.

N. Nindabilan = je marchais	Nindabilken je pourrais marcher
H. Hindabilan =	Hindabilken
Z. Zinabilizan =	Zinabilizken
H. Zabilan =	Zabilken
G. Gınabilizan =	Gınabilizken
Z. Zinabilizaten =	Zinabilizketen
H. Zabilizan = etc.	Zabilizken etc.

33 IZAN. Régime indirect Indicatif Imparfait.

Singulier	Hura Zen = Il était.
Hura Zitzaitan (neri)	= il m'était
Zitzaitun (zuri)	= il vous était
Zitzaiton (hari)	= il lui était
Zitzaitun (guri)	= il nous était
Zitzaituen (zueri)	= il vous était
Zitzaitun (heuri)	= il leur était